

VALUE PROPOSITION

Gaur egun, emakumeek sufritzen dituzten agresioei, bortxaketei, hilketei eta bestelako indarkeriari aurre egiteko produktu berri eta erabilgarria sortu dugu: drogak detektatzen idtuen edalontzia. Produktua “BiziEdan” izeneko marka batetik dator. Gure enpresak edalontzi horiei “edalontzi txibatoa” izena jarri die.

Gure bezero nagusiak, kontzertuak, festibalak eta festak antolatzen dituzten erakunde eta udaletxeak izango dira. Festa dagoen eremuetan gertatzen direlako bortxaketa eta agresio gehienak.

Festetan saltzen diren edalontzien prezioa 1-2€ bitarte izan ohi da, aldiz, gure edalontzia 3€ salduko dugu unitatea. Edalontzi arruntak baino pixkabat garestiagoa izango da, baina zerbitzu berri bat eskainiko du, eta gure segurtasuna bermatuko du, beraz, uste dugu prezio egokia dela eskainiko dugun produktu berritzaile baten truke.

Gure produktua, 13cm-ko altuera izango du, eta 40cl likido egoteko ahalmena edukiko du. Pertsonalizatuak egongo diren horretan, estetika zaindua edukiko du. Pertsonalizaizo hori binilo bidez egingo dugu.

Beste alde batetik, drogak detektatzen dituen bakoitzean, edalontzia kolorez aldatuko da, eta kolore gorri bizia hartuko du, eta horrek ohartaraziko digu bertan drogaren bat jaurti dutela eta ezin dugula bertatik edan.

Drogak basoetan botatzeagatik gertatu diren agresioen estatistikak behatuz gero, ikusi dezakegu hilabete bakoitzean bataz beste 4 kasu gertatzen direla herri batzuetan, ondorioz, kasuak %500 handitu dira azken urteetan.

Kasu harrigarri baten adibidea, Santiagorena da. Santiago, taberna batera joan zen, eta momentu batean bi gizon hurbildu zitzaizkion. Gizon horietako bat, toki batera nola joaten zen galdetu zion, eta bitartean, beste gizonak droga bota zizkion bere edalontzira. Gerora, Santiago mareatuta sentitu zen, eta konturatu zen kartera lapurtu egin ziotela. Kasu honek erakusten digua arriskua uneoro egon daitekela, eta ez soilik gauean edo festan zehar. Bestu kasu bat Ingalaterran izan zen, non Mia Doshi Prichard izeneko neska bat egun batean bere lagunekin festa batera joan zenean droga bota zioten eta desorientatu egin zen. ordutik, ez da festa batera joateko gai.

Argi ikusi dezakegu gaur egun festan ateratzea edo kalean ibiltzea gero eta arriskutsuagoa dela, izan ere, geroz eta gehiagotan gertatzen dira bortxaketak, agresioak, akosoa hilketak... eta hau denoi kezkatzen gaituen gai bat da. Horretarako, edalontzi mota hau sortzea erabaki dugu besteek drogak botatzerakoan, gure edalontzian zerbait dagoela adieraziko diguna. Honi esker, gertatzen diren gauza askotaz babestu gaitezke, bai drogen eraginetaz eta bai ondoren gertatu daitezkenataz. Hau, festa handi eta txikitik segurtasuna bermatzeko modu onena dela esango genuke, izan ere, lehen aipatu dugun bezala, gauero sentitzen dugun beldurra murriztea lagunduko du.

Gure produktua gainontzekoengandik bereizitzen da. Adibidez, Delfteko Unibertsitate

Teknikoko ikasleek "Spyke" izeneko proiektu bat aurrera atera dute, eta proiektu horren bidez, GHB droga detektatzean kolorez aldatzen den edallontzi bat sotu dute. Beste alde batetik, Boston dagoen "DrinkSavvy" konpainia, kolorez aldatzen den edallontzia ere sortu dute, baina aurreko bi adibideek ez bezala, gure proiektuaren bitartez sortutako edallontziak, droga bat baino gehiago detektatzeko prest egongo da, adibidez: GHB, ketamina eta burundanga. Horrez gain, ekitaldi bakoitzera egokituta egongo da, hau da, pertsonalizatuta egongo dakontzertu, festibal eta festa bakoitzera.